


UPV/EHU-k, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren **1.4 puntu**an –**Gradu eta master amaierako proiektuetan genero ikuspegia sustatzea**– aurreikusitako ekintza bat betetzeko, gradu amaierako lanetan genero ikuspegia txertatu duten lanak bultzatzeko eta ikustarazteko, sari bat sortzea erabaki du.

Sari horren izena Francisca de Aculodi da, aurreko sarietan gertatu den moduan, jatorriz edo adopzioz euskaldunak izan ziren eta beren lanbideetan aitzindariak izan ziren emakumeen izenak eta ekarpenak berreskuratzeko bideari jarraituz.

Estatu osoan eta, are gehiago, Europa osoan ezagutzen den lehenengo emakume kazetaria, 1687an hasi baitzuen bere lana, Elisabeth Mallet-ek, adibidez, *Daily Courant* 1702an sortu zuen Ingalaterran.



Francisca de Aculodi

(XVII. mendea)

Liburuen eta liburuxken inprimatze-lana, familia-lana izan ohi zenez, emakumeen lana ere izan zen, baina haien aztarnak galdu omen dira

Emakume kazetarien lehengo aztarnak XVII. medekoak dira, Donostian Francisca de Aculodi, 1687tik 1689ra arte, *Noticias principales y verdaderas* orria inprimatzen eta argitaratzen hasi zen unean.

Orria hamabostero ateratzen zen, eta Bruselan, Espainiak orduan Flandesen zituen lur-eremuen hiriburuan, Pedro de Cleyn-ek ateratzen zuen egunkariaren kopiatzat hartzen da.

Francisca de Aculodik, berri horiekin batera, tokiko berriak sartzen zituen, berak aukeratuak eta idatziak. Eta, esaten denez, osperen bat lortu zuen.